

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren argitalpen berriak: terminologia eta toponimia



Hiru liburu berri argitaratu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, terminologiari buruz ari dira horietarik bi, *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua* eta *Terminologia hiztegia*, eta toponimiaz bestea, *Toponimia eta Kartografia: oinarrizko eskuliburua*.

Argitalpen horiek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) agindutakoa betetzeko egin ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Terminologia dela eta, HPSk hainbat pauso eman du datozen urteotako terminologia-lana antolatze, koordinatze eta bideratze aldera: batetik, EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoa sortu du (www.euskadi.net/euskalterm), UZEIk 1987an sortutako bankua oinarrian duena hain zuzen, eta, bestetik, Terminologia Batzordea eratu du Euskararen Aholku Batzordearen barruan (179/2002 Dekretua, EHAA, 148. zk.).

Argitara berri diren bi lan horiek oinarrizko tresna zaizkio terminologia landu nahi duenari: *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburuan* terminologia-lanaren urratsak eta jarraitu beharreko metodologia azaltzen dira eta *Terminologia hiztegian* terminologiagintzan erabiltzen diren izen-dapenak eta dagozkion kontzeptuak biltzen dira. Liburuak UZEIk prestatu ditu EUSKALTERM eguneratzeko egindako lanen barruan.

Bestalde, Euskararen Aholku Batzordearen Toponimiako Batzorde-Atal Bereziak "Toponimiari buruzko jarduketa plana (1999-2001)" onartu zuen 2000. urtean. Plan horretan, toponimiaren alorrean egin beharreko lanak eta horien lehentasun-maila finkatu ziren. Lehentasun horiei erantzuz

nez dator *Toponimia eta Kartografia: oinarrizko eskuliburua* izeneko argitalpen berria, toponimia alorreko ikerketa-lanak nola bideratu azaltzen duena. Nerea Mujika Ulazia geografoak, Batzordeko adituak, egin du eskuliburua Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aginduz.

OpenOffice.org 1.0.2 euskaraz

Linux Mandrake 8.2 software libreko sistema eragilea euskaraz atera ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak OpenOffice.org bulegotikako paketearen 1.0.2 bertsioa kaleratu berri du; Windows eta Linux sistema eragileetan erabiltzeko dago eratu eta OpenOffice Writer idazteko, OpenOffice Calc kalkulu-orria, OpenOffice Draw marrazketa bektorialeko aplikazioa eta OpenOffice Impress aurkezpenak egiteko aplikazioak dauzka (Word, Excel eta PowerPoint bezalakoak). CDan Xuxen zuzentzaile ortografikoa ere integratu da eta OpenOffice instalatu ondoren instalatu behar da.

Itzulpen-lana UZEIk eta Elhuyarrek egin dute, konpilaketa-lanak eta lokalizazioa bera Zundan enpresak, koordinazio teknikoak EJIek eta itzulpenaren berrikuspen-lana Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Xuxen zuzentzailearen bertsioa Eleka enpresak egokitu du.

CDarekin batera, HPSk *Open Office.org erreferentzia-eskuliburua* ere jarriko du erabiltzaileen eskuetan paperezko formatuan nahiz euskarri elektronikoan. Eskuliburua EditLin enpresak prestatutakoa da eta itzulpena UZEIk egin du.

OpenOffice.org, erreferentzia-eskuliburua eta Xuxen zuzentzaile ortografikoa www.euskadi.net/euskara_soft helbidean daude eskuragarri nahi duenarentzat.

1

HPSren argitalpen berriak

2

PERTSONAJEA:
Maria Dolores Agirre

LABURRAK

• Uda Ikastaroen XXII. edizioa

• Jose Maria Satrustegiren heriotza

AGENDA

• Hezkuntza, Formakuntza eta Jakintzaren Mundu Merkatua

3

Egonaldiak familia eskaldunetan 2003

• Euskal Idazleen Elkartearen web berritua

4

Aramaioko euskararen azterketa

laburrak



Uda Ikastaroen XXII. edizioa

Donostiako Miramar jauregiko Uda Ikastaroen XXII. edizioa izango da ekainetik irailera bitarte. Hizkuntzalaritza ikastaroei dagokienez, hiru saio izango dira. Lehen, ekainaren 23tik 25era izango da, *Teknologia berriak eta euskararen erronka: hizkuntza gutxituen hedapena teknologia berrien bitartez* izeneko mintegia, Ainhoa Beolak zuzenduko duena, euskaraz. Bigarrena,

ekainaren 30etik uztailaren 2ra, munduko hizkuntzen etorkizunari buruzko ikastaroa izango da, Patxi Juaristi eta Andoni Barreña irakasleek zuzenduko dutena, gaztelaniaz. Hirugarrena, uztailaren 3tik 5era, elebitasun eta eleaniztasunaren alderdi linguistiko eta neurokognitibo ingurukoa, Ricardo Etxepare eta Beñat Oihartzabal irakasleen ardurapeko ikastaroa izango da, ingelesez. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo EHUren web-gunera, www.sc.ehu.es helbidera.

Jose Maria Satrustegiren heriotza

Bidegile handia galdu du berriki Euskal Herriak. Etnografiaren aitzindarietakoa eta euskararen aldeko ikerlari sutsua: Jose Maria Satrustegi. Martxoaren 27an hil zen Iruñean. Etnografia eta hizkuntzalaritza lanetan murgildurik eman zuen bizialdia, hainbat liburu argitaratu zituen (*Bordel bertsularia, Euskaldunen seksu bideak, Ekaitza, Euskal testu zaharrak...*), eta milaka artikulu bateko eta besteko aldizkari eta agerkaritan. Euskaltzain oso izan zen 1957az gero, Orixe zenaren lekua betez.



A. Bayo

agenda

Hezkuntza, Formakuntza eta Jakintzaren Mundu Merkatua

Hezkuntza, Formakuntza eta Jakintzaren Mundu Merkatua (World Education Market, WEM) egin da Lisboan maiatzaren 20tik 23ra. Iazko edizioan, 71 herrialdeetatik joandako 1.947 partehartzaile eta 949 erakunde bildu ziren Parisen, hau da, hezkuntza arloan ari direnen profesionalen nazioarteko bilgune izan zen WEM. Aurten ere, Europatik ez ezik, Asiatik eta Hego Ameriketatik ere espero dituzte bisitariak antolatzaileek. WEM azokan izango da Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza bat.

pertsonajea

MARIA DOLORES AGIRRE

Antzerkia eta irratigintza euskaraz



Bidegileak bildumaren 28. sortan ageri den pertsonajea dugu Maria Dolores Agirre. Lurdes Auzmendi itzultzaileak ondu du antzerkigintzan eta irratigintzan nabarmendu zen emakumearen biografia.

Maria Dolores Agirre Aizpuru (Errezil, 1903 - Donostia, 1997). Herriko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamabira bitartean. Hamalau urte bete zituen Donostiara jo zuen maistra ikasketak egitera eta Gipuzkoako hiriburuan egin zuen habia, betiko, ezkondu ere Donostian egin zen eta. Euskarara irakasten, antzerkigintzan, itzultzen eta irratian

jardun zuen lanean joan den mendearen erdi alderaz gero, garaiko giro abertzalean murgil eginik.

Maistra ikasketak egin zituen lehen emakumeetarik izan zen Maria Dolores Agirre. Haren ondoan ziren Julene Azpeitia, Elbira Zipitria, Katalina Elizegi... Euskarazko eskolak ematen hasi zen etxean eta Antonio Agirre kontsula, Inazio Usandizaga, Karlos Santamaria, Migel Castells eta beste zenbait lagun izan zituen ikasle. Ondoren Euskal Izkera ta Iztunde Ikastola izenekoan jardun zuen ikasle, irakasle baino lehen, Toribio Altzaga, Abelino Barriola eta besterekin batera. Etxean eta Iztunde Ikastolan ez ezik, Ateneoan, Alargunen Klubean, Emakumeen Kultur Etxean eta abarretan eman zituen euskarazko eskolak.

Iztunde Ikastolan zela, Toribio Altzagaren ikasle eta laguntzaile jardun zuen Maria Dolores Agirrek eta hura 1941ean hil zenean, errezildarrak segitu zion lanari, 1973an erretiratu zen arte. Bertako idazleen lanak (Toribio Altzaga, Abelino Barriola, Antonio M^a Labayen, Augustin Anabitarte...), eta besterenak itzuli eta antzetzu zituzten (Garcia Lorca, Buelo Vallejo, Pio Baroja...).

Irratigintzan ere ari izan zen Maria Dolores Agirre, hogeita bost urtez ari ere. 1955ean hasi zen, Basarri, Manuel Oñatibia, Enrike Zurutuza, Joxemari Etxebeste eta beste zenbait lagunekin. Ohitura zaharrak, sukaldaritza eta era guztietako pasadizoak izaten zituen mintzagai Maria Doloresek Baserria izeneko programan.

Batean eta bestean, euskara erabil zitekeen leku gehienetan egin zuen lan Maria Dolores Agirrek bititza osoan zehar.



Egonaldiak familia euskaldunetan 2003

Euskara udalerrri eta auzo euskaldunetan ikasiz

Egonaldiak familia euskaldunetan programak euskara ikasteko eta hobetzeko beste bitarteko bat gehiago eskaintzea du helburu.

Programaren bidez ikaslea Euskal Herriko familia euskaldun batekin bizitzen jartzen da, hilabetez edo bi hilabetez, biztanleriaren %70etik gora euskalduna duten udalerrri eta auzoetako batean.

Egonaldiok uztailean, abuztuan eta irailean egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean.

Horrela, bada, ikasleak familia euskaldun bateko kide bat gehiago izateko aukera du hilabetez, etxeokoen bezalaxe ingurukoekin hitz egiteko, harreman berriak egiteko, bertako ohiturak eta kultura ezagutzeko, familiaren herria eta eskualdea ezagutzeko, etab.

Urtero HABEK bi deialdi egiten ditu: lehena, ikasleak hartzeko prest dauden familientzat; bigarrena, berriz, ikasleentzat. Apirilaren 1etik 30erakoa da lehenengoa eta maiatzaren 12tik ekainaren 6ra artekoa, bigarrena.

Aurten, Ulibarri Euskategia eta Urrats Euskategia izan dira egitasmo honen antolatzaile eta HABE sustatzaile. Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, jo www.egonaldiak.net helbidera.

Uda familia euskaldun batekin ematea ez da euskara ikasteko aukera bakarra, ordea. Udako ikastaroetara ere aspaldi jo du euskara ikasleak, hizkuntza hobetzeko asmotan. Ondoko mapan udako barnetegiak egingo direneko zenbait herri ageri dira.




Euskal Idazleen Elkartearen web berritua

Galeusca aurten Gernikan, udazkenean, "Historia eta oroimena" izenburupean

Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) gune berritua dauka. Bertan, elkartearen jarduna, idazle bazkideei buruzko informazioa, bibliografia eta argazkiak, elkartearen programa eta argitalpenak (Galeuscako txostenak, *Hegats* aldizkaria, *Kalegats* agerkaria), biltzarren gaineko txosten eta datuak, literatura lehiaketen agenda eta bazkideen txokoa dauzka. Web berrituan bertan, bestalde, Galeuscaren XX. edizioaren berri dugu, Gernikan egingo baita "Historia eta oroimena" izenburupean, udazkenean. Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko idazleak batuko dituen topaketaren helburua "herrialde bakoitzaren literaturak historiari eman dion tratamendua aztertzea izango da: dela nobela historikoan, dela folklorea zein mitologian".

Azken Galeusca-n (Mallorca, 2002ko azaroa) izandako hitzaldi eta irakurketa guztiak irakurgai daude www.idazleak.org gunean.




Aramaioko Euskara, herriko hizkera aztertu du Txipi Ormaetxeak

Hiztun helduenak elkarrizketatu ditu egileak lana burutu ahal izateko

Aramaio (Araba) herriko hiztun helduenek egiten duten hizkera jaso du Txipi Ormaetxea irakasleak *Aramaioko Euskara* argitalpenean. Lana burutu ahal izateko, 65-70 urtetik gorako zenbait hiztun elkarrizketatu ditu irakasleak; batetik, solasaldi librean eta, bestetik, galde-tegi zehatza baliatuz. Ondoren, materialaren azterketa egin du fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa bereiziz. Horrekin batera, bertoko hizkeraren lagina ere erantsi dio lanari. Gainera, hiru eratarata eman du delako lagina: lehenik, testuaren transkripzioa egin du idazkera ortografikoan; bigarren, euskara batuan eman du testua; hirugarren, Aramaio-ko euskara idatzian. "Azken hau Aramaio-ko euskaran idazteko egiten dudan proposamena da" dio egileak liburuaren atarikoan, nahiz eta Badihardugu elkarteak Deba arrorako onartuak dituen idazkera-irizpideak erabili dituen.

Araba iparraldean dago Aramaio, Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin muga eginez. 1.345 biztanle ditu 1996ko erroldaren arabera, horietatik %87,4 euskaldunak, %6,7 elebidun hartzaileak eta %5,9 erdaldun elebakarrak. Herri euskaldun-euskalduna da, beraz, Aramaio. Bertan egiten den euskara bizkaiera da (mendebaldekoa) eta euskararen erabilera handia da herrian. Irakaskuntza arautuan guztiz normalizatu da euskararen egoera, eta udalak ere -UEMAko kide 1996az gero- aurrerapauso nabarmenak egin ditu hizkuntzaren normalizazioan. Ahuluneetan, honakoak dira nabarmenenak, lanaren egile Txipi Ormaetxeak azpimarratu duenez: populaziorik erdaldunena 31-45 urte bitartekoa da eta udalerrriaren buruan, lbarran, erdalduna da adin horretako %20. Euskaldunen alfabetatze-maila eskasa da oraindik, ordea, eta esparru sozioekonomikoan gaztelaniarako joera handia dago.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta: